

JAIK ETA OSPAKIZUNAK

Unitate honen azken xedea Durangoko jaien (San Fausto jaiak) inguruko koplak egitea izango da. Izan ere, Durangon badaude beste jai batzuk ere eta unitatean zehar Durangoko jai ezberdinak landuko dira. Batzuk bertakoak eta beste batzuk kanpotik etorritakoak edo Euskal Herriko txoko ezberdinetan ospatzen direnak, berauek lantzeko jarduera ezberdinak egitea planteatzen da.

Ez ahaztu azken ekoizpenera begirako lanketa egitea oso garrantzitsua dela eta horretarako tartean egiten diren jarduerak ezinbestekoak direla.

Azoka txikia.

Atal hau unitate guztietan edukiko dugu. Bertan(4.orrialdean), gaiari lotutako materiala etxetik ekarri eta eskolan/ikastolan erakusgai jarriko dugu, ahal baldin bada jendeak ikusteko lekuan (sarreran, pasilloan, ...) Honekin eskola komunitateak zertan ari garen jakingo du.

Materiala ekartzen dutenean zer eta zergatik ekarri duten azaltzea izan daiteke ariketa posible bat. Horrela, ikasleek ahozkoatasuna landuko dute.

Mari eta konpainia (komikia)

Unitate honetako lehen jarduera da, beraz, aurre ezagutzak lantzeko erabiliko dugu. Komikiak Durangoko jai ezberdinei buruzko informazioa ematen du eta horretarako, urtaro ezberdinetan banatzen da komikia bera. Marik bere lagun Amhedi jai ezberdinen barri emango dio: udazkenean Olentzero eta Mari Domingi, neguan Santa Ageda eta Aratustek, udan Urkiolako jaia eta San Juanak.

Komikiaren inguruan hitz egiteko 3.orrialdean galdera batzuk daude eta ospakizunen inguruan hitz egiteko aukera ematen dute. Alde batetik, zeintzuk ospakizun diren, bestetik ea Durangokoak edo beste leku batzuetakoak diren eta azkenik, ea jaiari lotutako kantarik ezagutzen duten. Seguru ikasleek jaiari buruz asko dakitela!

Txomin Askogura

Osaba Bitorrek ezagutzen duen jairik zaharrenaren pasadizoa kontatzen digu. Horretarako, Txomin Askoguraren ipuina kontatzen digu. Ipuin hau ikasleekin batera irakurtzea garrantzitsua da, baina ondoren kontaketa egitea ere interesgarria izan daiteke. Ahozkoa eta kontaketa erabiltzen diren teknika erabiliz.

Kontatzeko bikoteka jarri ahalko dira, ikasleek albokoari kontatuko diote istorioa bera. Baina ipuinak berak hainbat kontzeptu lantzen ditu, urtaroen garrantzia, noiz da ereiteko sasoia, noiz jasotzekoa. Eta azkenik San Juan bezperako jaiak lantzen da eta horren inguruko lanketa egiteko bi galdera daude. Baina garrantzitsuena jai horren inguruko informazioa jasotzea izango da. Horrekin batera, San Juanekin lotutako kantuak ere landuko ditugu eta berauek klasean kantatuko ditugu.

Zeu ere ipuin kontalari

Aurretik landutako ipuin kontaketa ariketa honetan taldeka egingo dugu. Lau pertsonako taldeak osatuko ditugu eta ikasleek ipuin bat aukeratu/sortuko dute. Aurretik landutako ipuina ere kontatu daiteke.

Ipuina beste ziklo batzuetako ikasleei kontatu beharko diegu eta horretako kontuan izan beharko ditugu ipuina kontatzeko ematen diren irizpideak. Saio bat erabili dezakegu ipuinaren kontaketa bera prestatzeko eta ondoren, beste ikasle batzuei kontatzeko gainontzeko zikloekin koordinatu beharko gara.

San Juan jaien jatorriaz

San Juanei buruzko informazioa ematen da eta berau ikasleekin landu daiteke. Erritu ezberdinak agertzen dira, horien inguruko lanketa egitea interesgarria izan daiteke.

Garai bateko San Juanak

Atal honetan bideo bat ikusiko dugu, bertan Feli Uribe Alberdik beraien umezaroan San Juanetan kantatzen zuten kanta bat ageri da. Behean agertzen da kantua bera idatzita eta ikasleen lana hutsuneak betetzea izango da. Ondoren, guztiok batera abestuko dugu.

Neguko ospakizunak

Atal honetan aratusteak edo karnabalen inguruko informazioa ematen dugu. Aipatutako jaiak herri askotan ospatzen dira, baina Durangoko aratusteek badute berezitasun bat: surrandiak. Beheko testuan aipatutako pertsonaiaren inguruko xehetasunak ematen dira.

Abestia

Durangoko aratusteetako kanta entzungo dugu eta ondoren denok batera kantatuko dugu. Garrantzitsua da letrari erreparatzea, beronek informazio ugari ematen baitigu. Surrandien irudia buruan irudikatzea eskatuko diegu ikasleei.

Durangoko Aratusteak

Atal honetan aurretik buruan izan duten irudia paperean egitea eskatuko diegu. Horretarako, ezaugarriak bergogoratu beharko dituzte eta ondoren marrazketari ekin.

Garai bateko jai nagusiak

Atal honetan bideoa ikusi beharko dute ikasleek eta ondoren, bideoan ikusitakoa landu beharko da talde handian.

9.orrrialdean Urkiolako aita San Antonio kantua entzun eta kantatu beharko dute.

San Faustoak

Durangoko jaien inguruko azalpen testu bat lantzea proposatzen da eta bertan Patxikotxu eta Pantxike pertsonaiak ageri dira. Aurretik landutako jaiak beraien kantua dute, baina San Faustoek ez dute kantarik, hortaz ikasleei San Faustoetarako kopia batzuk egitea proposatuko dizkiegu.

Azken ekoizpena

Unitatearen hasieran aipatzen den bezala, San Faustoei kantua egiteko momentua iritsi da eta unitatean zehar egindakoak balioko digulakoan gaude.

San Fausto jaietako pertsonaiak diren Patxikotxu eta Pantxike hartuko ditugu oinarritzat. Jarduera honetan ikasleei bi pertsonaiak deskribatzeko proposatuko diegu. Ondoren, beraien kopletan agertuko diren ideia nagusiak izango dira.

Idatzitako ideiekin edota bestelako batzuekin lau kopia egin beharko dituzte taldeka. Ondoren, ikastetxean zehar kantatzeko prestatu beharko dituzte.

Aholkuak

Kopla egiterakoan kontuan izan beharrekoak landu beharko dira: doina, neurria, erritmak...

Horrekin batera, kantatzerakoan kontuan izan beharrekoak ere landu beharko genituzke eta ikastetxeko beste kide batzuei kantatu aurretik, entseguak egitea baloratu beharko da.

Kopla osatutakoan garrantzitsua da Durango ezagutu helbidera bidaltzea.

Zer ikasi dut?

Atal denetan azaltzen dira ebaluazio galdera hauek. Ebaluazioa atal ezberdinetan banatuta dago. Alde batetik, beraiek ikusitakoa azaltzen da. Bestetik, taldean edo taldekideengandik ikusitakoa eta azkenik, materiala edo unitatearen ebaluazioa. Ahoz zein idatziz egin daiteke.